

EUSKADIKO HERRITARRAK COVID-19 PANDEMIAREN AURREAN (2020ko urria) Prensa oharra

SARRERA

Ikerketa honen gai nagusiak Euskadiko herritarrek Covid-19aren hedapenaren inguruan dituzten iritzi eta jarrerak izan dira. Landa lana 2020ko urriaren 13tik 17ra bitartean egin zen.

KEZKA

Kezka handia hurbileko pertsonen osasunagatik eta ondorio ekonomikoengatik

Euskal herritarrek kezka handia agertu dute koronabirusaren hedapenagatik; %33k diote oso kezkatuta daudela eta %54k nahiko kezkatuta.

Gutxiago dira eurak gaixotzeagatik oso edo nahikoa kezkatuta daudenak (%76) bere inguru hurbileko norbait gaixotzeak kezkatzen dituenak baino (%94).

Ondorio ekonomikoei dagokionez, %46k diote oso kezkatuta daudela krisiak bere familiaren egoera ekonomikoan izan ditzakeen ondorioengatik eta beste %38 nahiko kezkatuta. Are handiagoa da kezka krisiak Euskadiko ekonomian izan ditzakeen ondorioengatik: %56 oso kezkatuta daude eta %40 dezente.

Kezka gutxiago sortarazten dute pandemiak seme-alaben eskolatzean izan ditzakeen ondorioek (%46 eta %37 asko edo nahikoa, hurrenez hurren), buruko osasunean edo osasun emozionalean izan ditzakeen eraginek (%33 eta %34) eta etxeko familia-kontziliatorako ekar ditzakeen (%27 eta %26).

Inkestatuei galdetu zaie zerk kezkatzen dituen gehiago, osasunaren gaineko ondorioek ala ekonomia eta enpleguaren gainekoek; %56k esan dute osasunaren gaineko ondorioek kezkatzen dutela gehiago eta %25ek ekonomia eta enpleguaren gainekoek. %19k espontaneoki diote biek berdin kezkatzen dituztela, nahiz eta erantzun aukera hori ez zitzaien eman.

Inkestatuei galdetuta Covid-19ak beraien osasunean zenbateko larritasuna izango lukela uste duten, %15ek esan dute oso larria litzatekela, %28k nahikoa larria, %37k ez oso larria eta %7k ez batere larria. Gaixotasunak izango lukeen larritasunari buruzko pertzepzioa adinarekin oso lotuta dago; adinean aurrera egin ahala gero eta gehiago dira nahikoa edo oso larria izango litzatekela uste dutenak. 18 eta 29 urte bitarteko gazteen artean %65ek uste dute ez litzatekeela oso larria eta %18k ez litzatekela batere larria izango.

EAEko herritarren %26k uste dute pandemiaren okerrena pasa dela, %17k oraintxe okerrena pasatzen ari garela eta %48k okerrena iristear dagoela.

OSASUN SISTEMAREN ERANTZUNA

Euskal osasun sistemaren erantzunaren balorazio ona

Herritarren %62ren iritziz euskal osasun sistema pandemiaren aurrean ematen ari den erantzuna beste Autonomia Erkidegoetakoa baino hobea da, %29ren ustez berdina eta bakarrik %1en iritziz okerragoa.

Herritarren %69k 7 eta 10 puntu artean eman diote Osakidetza Covid-19arekin gaixotutakoei ematen ari den arretari.

Osasun agintarien informazio eta gomendioen argitasunari dagokionez, herritarren %47k 7 eta 10 arteko puntuazioa eman diote.

Herritarrek nahiago duten aukera partekatutako kudeaketa da. Honela, inkestatutako 10 pertsonatik 7k uste dute kudeaketa egokiena litzatekeela Espainiako Gobernuaren eta Gobernu Autonomikoen artean partekatutakoa, %17ren iritziz hobea litzateke krisia gobernu autonomikoei kudeatzea nagusiki eta bakarrik %3k esan dute hobea litzatekeela nagusiki Espainiako Gobernuak kudeatzea.

PANDEMIAREN AURKAKO NEURRIAK

Gehienek prebentzio neurriak betetzen dituzte

Herritarren %50ek diote (lan harremanak alde batera utzita) lehen baino askoz jende gutxiagorekin egoten direla aurrez-aurre, eta beste %31k pixka bat gutxiagorekin. %18k pandemiaren aurretik adina jenderekin dute aurrez-aurreko harremana.

Berarekin bizi ez diren familiarteko edo lagunekin elkartzeko maiztasunari dagokionez, %54k diote askoz gutxiagotan elkartzeko direla eta %31k apur bat gutxiagotan. %14k diote lehengo maiztasun berarekin elkartzeko direla.

Norberarekin bizi ez direnekiko 1,5 metroko tartea mantentzeko gomendioa dela eta, hirutik bik (%67) diote pertsona guztiekin edo ia guztiekin mantentzen dutela eta %27k batzuekin. Prebentzio neurri hau gehiago betetzen da adinean aurrera egin ahala. 18 eta 29 urte bitarteko artean, %35ek diote beraiekin bizi ez diren pertsona guztiekin edo ia guztiekin mantentzen dutela tartea, eta %51k batzuekin.

Maskararen erabilera oso zabaldua dago eguneroko bizitzako egoera gehienetan: denda baten barruan (beti edo ia beti %99k), kalean ibiltzean bakarrik edo berarekin bizi den norbaitekin (%88), lanagatik beste pertsona batzuekin daudenean (%88), berarekin bizi ez diren familiareko edo lagunekin aire zabalean elkartzean (%76). Ehuneko hori nabarmen baxuagoa da bi egoeratan: berarekin bizi ez diren familiareko edo lagunekin etxe batean elkartzean (%41) eta jenderik ez dabilen lekuetan (mendian adibidez) bakarrik edo berarekin bizi den norbaitekin ibiltzean (%35).

Herritar gehienentzat betetzeko gogorrenak izan diren neurriak ondokoak dira: konfinamendua (oso edo nahikoa gogorra %62rentzat), maskara derrigor erabiltzea (%62), parke eta leku publikoak ixtea (%43) eta kultur ekintzetan aforoa erdira jaitea (%34). Neurri txikiagoan, tabernetako barran kontsumitzeko debekua (%22), kirol-ikuskizunetara joateko debekua (%20), eta azkenik tabernak ordubata baino lehen ixtea (%14).

Herritarren %71k uste dute euskal herritar gehienak gizalege eta elkartasunez jokatzeko ari direla Covid-19aren prebentzio neurriak betetzean; %24k bakarrik diote gehiengoak gizalege eta elkartasun gutxiarekin ari dela.

Iritzi zatiketa handia dago beharrezko neurriei buruz: %48k uste dute kontrol eta isolamendu neurri zorrotzagoak hartu beharko lirakekeela eta %45ek orain arte bezala jarrai dezakegula.

ONDORIOAK EKONOMIAN ETA OHITURETAN

Egoera ekonomikoa okerrera

Herritarren %35ek diote bere egoera ekonomikoa okerragotu egin dela pandemiarekin. %32k uste du urtebete barru okerragoa izango dela, %47k ez dela aldatuko eta %13k hobetu egingo dela.

Herritarrek uste dute pandemiaren ondorioz gure ohiturak aldatu egingo direla, batez ere ondoko arloetan: bidaiak (%33k uste dute asko aldatuko direla), lan egiteko modua (%29), besteekin erlazionatzeko modua (%27), familia bizitza eta lana bateratzeko modua (%26), eta, azkenik, ingurumenarekiko errespetua (%20).

TXERTOIA

Gehienek txertoa jartzea nahi lukete, baina zuhurtzia dago momentuari buruz

Euskal herritarren ia erdiek (%47) diote txerto eraginkor eta segurua lortutakoan, jartzea nahiko luketela, baina bakarrik beste jende askori jarri ondoren. %30ek ahalik eta lasterren jartzea nahiko lukete (estatuan ehuneko hori %40ra iristen da), eta %20k diote ez dutela nahi txertoa jartzetik.

Txertoa nahi ez izateko arrazoi nagusiak dira haren segurtasunarekiko zalantzak eta beharrezkoa ez delako ustea. Txertorik nahiko ez luketenen %15ek (biztanleria osoaren %3k) diote txertoak kaltegarriak direla.

ZAINZA LANAK PANDEMIA GARAIAN

Kontziliaziorako zailtasun gehiago

Herritarren %25ek uste dute etxeko lanetan eta zaintza lanetan gizon eta emakumeen arteko desberdintasuna areagotu egin dela pandemia garaian, %53ren ustez berdin mantendu da eta %10en ustez murriztu egin da.

16 urtez azpiko seme-alabak dituztenen %47k diote haien zainketa gainerako jarduerekin bateratzea pandemiaren aurretik baino zailagoa dela.

Pertsona dependente, adineko edo gaixoren bat zaintzen duten herritarren %31k diote lan horretan ematen duten denbora asko edo nahikoa gehitu dela pandemia garaian.

Lau inkestatutatik hiruk diote haurren, pertsona dependenteen, nagusien eta gaixoen zaintzaren antolaketak pandemiaren aurretik baino gehiago kezkatzen dituela orain.

Ikerketa honen **fitxa tekniko**a zabaldu den txostenean kontsulta daiteke. Lagina 18 urtez gorako herritarrei zuzendua, EAE osorako 1430 lagunek osatua da. Elkarrizketak telefonoz egin dira. Lagin honi dagokion lagin errorearen estimazioa $\pm 2,6$ koa da EAE osorako, %95,5eko konfiantza mailarako, $p=q=0,5$ izanik. Informazio bilketa 2020ko urriaren 13tik 17ra bitartean egin zen.

OHARRA: Txosten osoa Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen webgunean eskuragarri dago:

http://www.euskadi.eus/ikerketa_soziologikoak

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urriaren 23a